

ONDORIOAK	KONPROMISOAK	PROPOSAMENAK
<p>Ikasle gehienek badakite ikastetxean era askotako hondakinak sailkatuta biltzen direla eta non dauden ontziak. Baina, ez dakite hondakin berezi batzuekin (CD, kartutxoak...) zer egiten den.</p> <p>Sailkapena leku batzuetan nahiko gaizki egiten da eta hondakinak zaborrontzien inguruan ikusten dira lurrean botata.</p> <p>Idazteko materialak (errotulagailuak, boligrafoak) ez dira birziklatzen.</p> <p>Aluminio papera erabiltzen da gehien bat hamaiketako biltzeko.</p> <p>Kafe makinetan ontzi asko sortzen da.</p>	<p>Gelako paperontzia zaindu.</p> <p>Hondakinak dagokion ontzietara bota eta ez lurrera.</p> <p>Orriak bi aldeetatik erabili eta ondo aprobetxatu.</p> <p>Biltzen hasi eta birziklatzeko ontziak egin.</p> <p>Hamaiketakoa ekartzeko bilgarria berrerabili eta tuperrak erabiltzen hasi.</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Atariko zaborrontziak aztertu, gaizki daudenak ordezkatu eta falta direnak (organikoa) osatu. • Sukaldean organikoa bereiztu eta birziklatu. • Zulo txikiagoa duen paper ontziak jarri geletan. • Kanpaina egin hondakinak murrizteko eta ondo sailkatzeko. • Alde batetik erabilitako papera geletan jarri berrerabiltzeko. • Ontziak jarri idazteko materialak (errotulagailuak, boligrafoak) jasotzeko. • Kafeterako ontziak berrerabili

Ondoren, Loinazpen, gela ezberdinetan egin diren proposamenak:

- Hondakinak lurrera botatzen ikusten dugunari, behar den zaborrontzira botarazi.
- Paperontziak handiagoak direnez, hara edozein hondakin mota botatzea errazagoa da. Beraz, neurri bereko ontziak jarri.
- Edukiontzi ezberdin gehiago jarri.
- Atarian organikoen edukiontzi bat jarri.
- Bereiztutako edukiontziak jarri bakoitzaren izenarekin. Patioan lau lekutan eta deskansilloetan.
- Astero gela batek patioa garbitzea, ikusteko zenbat zabor biltzen den.
- Gauzak zaborrontzira bota eta ahal den gehiena erabili.
- Teknologia berriak erabili paper asko ez gastatzeko.
- Birziklatu eta lurrera botatzen badugu zigor bat ezarri.
- Irakasleek banatzen dituzten txostenak ez galdu.
- Sukaldeko hondakinak bereiztu eta birziklatu. Plastifikatu gabeko produktuak erosi
- Boligrafo berrerabilgarriak erabiltzea.